

Live-In etxeak erreformatzen eta logelaka alokatzen ditu, horrela, prezio eskuragarriak eskaintzeko gure bezeroei, haien nahiak eta beharrak asetuz.


Gure proposamenak



- Gure enpresak eskaintzen dituen logelak ekonomikoki prezio eskuragarria dute. Bereziki gazteentzako eta arazo ekonomikoak dituzten pertsonentzat.
- Gure etxeek espazio partekatuek izango dituzte (egongela, sukaldea eta komuna). Jende berria ezagutzeko aukera da.
- Erreforma berriak dituzten etxebizitzak direnez erakargarriak eta erosoak dira.



- Lokalizazioari dagokionez, Bilboko erdigunean kokatuta egongo dira eta supermerkatuak, jatetxeak, farmaziak eta abar eskuragarri daude.



Argazki honetan, gure etxeak kokatuko diren zonaldean dauden farmaziak, jatetxeak eta supermerkatuak ikus daitezke.

Gure enpresa berezia da

Beste alokairu enpresetatik nabarmentzen gaituena gure bezeroei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak dira.

Garbiketa eta mantenimendu jarduerak eskaintzen ditugu etxebizitzak ahalik eta baldintza onenetan egon daitezken. Honek, pisu berrira aldatzea eroso, erraza eta azkarra egingo du. Bestalde, hasieran erabiliko dugun etxearen jabeak irabaziaren zati handi bat eramango du, errentagarria izan dadin.



Gure negozioa martxan jartzeko jarraituko ditugun pausuak

- Lehenik eta behin, etxea lortu behar dugu, horretarako gurekin aliantza bat egingo dugun pertsona bat bilatuko dugu.
- Pertsona horrek 10 urtez utziko digu etxea, guk etxea eraberritu eta logelaka alokatzeko.
- Logela bakoitza 450€-tan alokatuko dugu gutxi gorabehera.
- Mozkinaren % 40 etxearen jabeari emango diogu eta %20 AteHome inmobiliariari.

Etxearen jabearen eta gure enpresaren arteko kontratua

Etxe bat uztea beldurra ematen du; horregatik, gure bezeroei behar duten segurtasun guztia eman nahi diegu.

Kontratu bat egingo dugu jabearekin, etxea 10 urtez edukitzeko. Kontratuan baimena eman behar digute etxea erreformatzeko eta alokatzeko. Kontratuan jabeak emango dituen irabaziei buruzko beharrezko informazioa emango du. Kontratu honek argi uzten du, halaber, etxebizitza barruan matxurarik edo arazorik izanez gero, gu geu, Live-In enpresak arduratuko garela arazoa konpontzen.

Bezeroentzako baldintzak:

1. Gurekin kontratu bat sinatzea beharrezkoa da, ez ordaintzeak, apurketak, okupazioak eta horrelako gauzen aurka arituko garelako.
2. Beste kontratu bat sinatu beharko dute bizikideek, partekatzeko diren lekuetan haien artean ados egoteko.
3. Etxea garbi egon behar da eta espazio partekatuak txukun mantendu behar dira.



EZ GARA ARDURATUKO GALTZEN DIREN GAUZETAZ.